



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 25a

122. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 19. artikulua aldatzen duena. Ezkerda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituen. Zuzenketa aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuaitzen du Estatuak Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtoa, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio prozesuan ager dadin Foru Lege hori defendatze aldera, eta gaitzesten du Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren errespetu instituzional falta. Ezkerda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kulturari buruzko Plan Estrategikoa osatu eta Legebiltzarrera igor dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eunateko Santa Mariaren inguruko jarduketak osa ditzan. Unión del Pueblo Navarro; Socialistas de Navarra; Bildu-Nafarroa; Aralar-Nafarroa Bai; Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Ezkerda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuaitu egiten baitu Transports Ciutat Comtal enpresako langileei lan-erreforma aplikatzea. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, mendekotasunaren arretaren arloko banakako laguntza programaren onuradunen balorazio ekonomikorako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten duten edo prestakuntzan ari diren barruko mediku egoiliar atzerritarrei buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (11. or.).
- Galdera, Ganasa sozietate publikoarena den Etxauriko haritz eta gerezio sailean eginiko gastuei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Enpresarako Karbono Funtsean izandako parte-hartzearen balantzeari buruzkoa, ikuspuntu ekonomiko finantzariotik, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeari eta talde horrek eginiko jardunari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (14. or.).
- Galdera, “Montepio orokorretik toki entitateentzako transferentziak, haien finantzaketarako” eta “Iruñeko, Tuterako eta Tafallako Udaletarako transferentziak” izeneko kontusailak finantzatu behar dituen kontusailako diru-sarrera handiagoen jatorriari buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (15. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz, BEZA dela-eta “Estatuarekiko doikuntzak” kontzeptu gisa jaso edo ordaindutako kopuruei eta haien datei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak ez dion alegaziorik aurkeztu Gipuzkoako Aldundiak bertako zenbait errepidetan bidesariak ezartzeko aurkeztu duen proiektuari, eta horri buruzko ekimenik abian jarriko ote duen. Galdera erretiratzea (16. or.).
- Galdera, pertsona etorkinentzako doako osasun-laguntzari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- Galdera, gaixo larriak edo gaixotasun larriak dituztenak tratatzera bideratutako zenbait medikamenturako koordainketa ezartzen duen Osasun Ministerioaren ebazpena dela-eta Osasun Departamentuak duen jarrearari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko arauak (18. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako izendatu beharreko hiru kideak hautatzeko arauak (19. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena.**

**AKATS ZUZENKETA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak 2013ko urriaren 17ko idazkia bidali du. Bertan jakinarazten du Nafarroako hondakin uren saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuan akats bat antzeman dutela eta zuzentzea eskatzen du. Aipatu idazkia ikusita, hona ERABAKIA:

**1.** Jasotzat ematea Nafarroako hondakin uren saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuaren akats zuzenketa.

**2.** Aipatu akats zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Akats zuzenketa**

Xedapen iragankor bakarrean: tarifa berriak, 3. idatz-zatian, hau jartzen du:

Neurketa	Prezioa
5 m <sup>3</sup> arte	40,00 euro
10 m <sup>3</sup> arte	80,00 euro
10 m <sup>3</sup> baino gehiago	8,00 euro

Honakoa esan behar du:

Neurketa	Prezioa
5 m <sup>3</sup> arte	40,00 euro
10 m <sup>3</sup> arte	80,00 euro
10 m <sup>3</sup> baino gehiago	8,00 euro/m <sup>3</sup>

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 19. artikulua aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 19. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 19. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Nafarroan Etxebizitza Izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 19. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena**

Nafarroan Etxebizitza Izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 17. eta 18. artikuluek ezartzen dituzte, hurrenez hurren, etxebizitza babestuak lortzeko betebeharrak orokorrak eta babes ofizialeko etxebizitzetarako berariazko betebeharrak. Gutxieneko betebeharrak batzuk betetzetik salbuesteko kasuak arautzen dituen 19. artikulua, ordea, zabalik uzten du erregelamendu bidez beste salbuespen batzuk ezartzeko aukera, eta horrek berekin dakar, berez, betebeharren deslegalizazioa, foru legearen helburuekin nekez ezkontzen dena. 19. artikulua aldatu beharra dago beraz, salbuespenak behar bezala mugatuta gera daitezen lege bidez.

**Artikulu bakarra.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 19. artikulua aldatzen da, honela geldituko baita:

“19. artikulua. Gutxieneko betebeharrak batzuk betetzetik salbuesteko kasuak.

Hona etxebizitza babestua lortzeko foru lege honetan ezarritako gutxieneko betebeharrak jakin batzuk betetzetik salbuesteko kasuak:

a) Esleipen prozesua egin ondoren, Zentsuan inskribaturik dauden eskatzaileen kopurua esleitu beharreko etxebizitza babestua baino txikiagoa den sustapenetan, etxebizitza guztien edo batzuen esleipena hutsik gelditu dela adierazten denetik hiru hilabete igaro ondoren, sustatzaileak eskatzen ahalko dio etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuari eskatzaileak gutxieneko diru-sarrerak frogatzeko betebeharratik salbuesteko, bai eta Nafarroako udalerrri batean erroldatuta eta Zentsuan egoteko betebeharratik ere.

b) Gutxieneko diru-sarrerak frogatzearen bete-beharretik salbuetsita daude etxebizitza babestua 3. idatz-zatiko a), b), e) eta f) letretako erreserbaren bidez lortzen duten eskatzaileak, hala nola foru ege honen 20. artikuluan 4. idatz-zatian aurreikusitako berariazko erreserben bidez lortzen dutenak.

c) Etxebizitza babestua alokairu-araubidean lortzen duten genero-indarkeriaren biktimei ez zaie eskatuko beste etxebizitza baten edo haren zati alikuota baten jabariaren titularrak edo hura erabili eta gozatzeko eskubide errearen titularrak ez izatea agintzen duen betebeharra.

#### **Xedapen indargabetzailea.**

Foru lege honen aurka doazen lege- nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarrik gabe gelditzen dira; bereziki, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuko seigarren xedapen iragankorra.

#### **Azken xedapena.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituen.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen ditue Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko azaroaren 5eko eguerdiko hamabiak**

**arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2013ko ekainaren 25eko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Estatuak Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtsua, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio prozesuan ager dadin Foru Lege hori defendatze aldera, eta gaitzesten du Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren errespetu instituzional falta.**

*IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Estatuak Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtsua, Nafarroako Gobernuari eskatzen baitio prozesuan ager dadin Foru Lege hori defendatze aldera, eta gaitzesten baitu Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren errespetu instituzional falta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Txema Mauleónnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuko kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Parlamentuak arbuiatzen du Estatuak Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtsua, Nafarroako Gobernuari

eskatzen dio prozesuan ager dadin Foru Lege hori defendatze aldera, eta gaitzesten du Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren errespetu instituzional falta.

Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak Estatuak premiatu zuen ez zezan errekurtsua jar Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka, eta bere babesa adierazi zion Nafarroako Kontseiluaren txostenari; izan ere, aho batez adierazi zuen araua Konstituzioaren arabera dela. Halere, Espainiako Gobernuak foru lege horren aurkako errekurtsua jarri du Konstituzio Auzitegian.

Zoritxarrez, praktika sistematikoa bihurtzen ari da Espainiako Gobernuak konstituziokontraktasuneko errekurtsuak jartzea Nafarroako Parlamentuak onetsitako lege ia guztien aurka. Halatan, gutxienez hamaika errekurtsu jarri dira jada beste horrenbeste foru lege eta dekreturen aurka, eta onetsitako edo onestear dauden beste lauren aurkako errekurtsuak jar litezkeela iragarri dute.

Gure ustez, autogobernua eskua sartzeko da Nafarroako Parlamentuak onesten duen foru lege ororen aurkako errekurtsuak aldiro jartzen ibiltzea; zaildu egiten du erakundeen artean zaindu beharreko errespetua eta lankidetzeta, eta eragotzi egiten du legezko arau horietatik heldu diren eskubideen aplikazioa eta bermea. Izan ere, Nafarroak auzi horien gaineko eskumena dauka, argi eta garbi, zenbait kasutan, eta beste zenbaitetan pertsonen osasunaren arloan dituzten oinarritzko eskubideak ukitzen dituzte, edo etxebizitza izateko eskubidea.

Hori guztia gutxi balitz, bai Barne Ministerioko, bai Gobernuaren Ordezkaritzako arduradun nagusiak beren iritzia ematen ari dira jendaurrean, esanez Nafarroako Parlamentua ardurarik gabe ari dela jokatzeko bere eginkizun nagusiari dagokionez: legegintzako ekimena baliatzea Nafarroaren eskumenen esparruan, horretarako hautatu baitute nafar herritarrek. Bakoitzak bere iritzia emateko askatasun osoa dauka bere alderdi politikoaren ordezkaria den aldetik, baina erakunde baten ordezkari gisa jardutean erakunde-errespetu falta larria da beste erakunde bat deskalifikatzeko iritzia ematea; kasu honetan, Nafarroako Parlamentuaren aurkakoak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtsioan pertsonatu dadin.

2. Espainiako Gobernuak errekurtsio hori jarri izanaren aurka dagoela adieraztea.

3. Gobernuaren ordezkariaren jokabidea arbuiatzea, nafarren ordezkaria den Nafarroako Parlamentuarekiko erakunde-errespetua ez gordezteagatik.

Iruñean, 2013ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kulturari buruzko Plan Estrategikoa osatu eta Legebiltzarrera igor dezan.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Kulturari buruzko Plan Estrategikoa osatu eta Legebiltzarrera igor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da

Kulturari buruzko Plan Estrategikoa osatu eta Legebiltzarrera igor dezan.

Urriaren 15ean, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak agerraldia egin zuen kasuko batzordean, Kulturari buruzko Plan Estrategikoa dela-eta talde politikoek duten iritzia ezagutzeko eta baloratzeko eta planari buruzko galderei erantzuteko.

Taldeei emandako erantzunean, Kulturako kontseilariak azpimarratu zuen dokumentua irekita zegoela, taldeek iradokizunak egin ditzaten, eta plana Nafarroako Kultura Kontseiluari eta beste kultur talde batzuei igorri zitzatela, aztertu eta iradokizunak egiteko. Taldeei ere gonbit egin zien, beren ekarpenak egin zitzaten.

Dokumentu hori aztertu ondoren, haren edukia aberasteko asmoz eta planaren azken bertsioa ezagutzeko, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Kulturari buruzko Plan Estrategikoaren eduki gaurkotua abenduaren 31 baino lehen igor dezan Legebiltzarrera, Nafarroako Kultura Kontseiluak eta planaren berri izan dezaten eta beren balorazioa egin dezaten igorri zaien beste talde batzuek egindako ekarpenak barne.

2. Dokumentua aberasteko eta lankidetzan ari zeko espiritu horrekin bat, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du taldeek egindako iradokizunak jaso ditzan planean; zehazki, ondokoak:

- Bultzatu nahi diren ekintzak burutzeko epeak eta baliabideak.
- Hurrengo bi urteotarako aurreikusitako neurri garrantzitsuenak zehaztea, ahal den neurrian.

• Ardatz bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema, planeko jarduerak zertan diren jakin ahal izateko, emaitza-adierazleen garapena aldian-aldian neurtu ahal izateko eta desbideraketak neurtzeko.

Iruñean, 2013ko urriaren 17an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eunateko Santa Mariaren inguruko jarduketak osa ditzan.**

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO; SOCIALISTAS DE NAVARRA; BILDU-NAFARROA; ARALAR-NAFARROA BAI; NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro; Socialistas de Navarra; Bildu-Nafarroa; Aralar-Nafarroa Bai; Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Eunateko Santa Mariaren inguruko jarduketak osa ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten taldeen ordezkariok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluetan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dugu kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eunateko Santa Mariaren inguruko jarduketak osa ditzan.

Urriaren 15ean, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak agerraldia egin zuen kasuko batzordean, Eunateko Santa Mariaren inguruan sortutako zenbait auziri buruzko informazioa emateko, azken hilabeteetako ekaitzen eta alboko lursailak ureztalurrak bihurtu izanaren ondorioz.

Aurkeztutako txostenak, egindako jarduketak eta taldeek emandako iritziak ikusita, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazi nahi du ekaitzen eta alboko lursailak ureztalurrak bihurtu izanaren ondorioz Eunateko Santa Mariaren inguruan izandako gertakariak direla-eta; izan ere, horiek kontuan hartu eta zuzendu beharra dago, etorkizunean gerta litezkeen kalteak ekiditeko.

2. Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Nafarroako Gobernuak eraginkortasunez eta azkartasunez egindako larrialdi jarduketak, egoera zein den ikusita.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondasunen titularrekin –Muruzabalgo parrokia– negoziatzean eraikina irekitzeko ordutegia zabaltzea, azken urteotan izandako bisitari kopurua ikusita.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eraikina inguratzen duen herrilurraren titularrekin –Muruzabalgo Udala– negoziatzean aspertsoreen arazoaren konponbidea, hezetasunak etorkizunean eragin lezakeen arazoa ekiditeko, multzoaren kalterako baita.



5. Eunateko Santa Mariaren berezitasuna eta izaera enblematikoa ikusita, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eraikina kontserbatzeko prebentzio plan bat taxutu dezan, babes mailarik handiena emanez, 2013-2016 urteetarako Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Urte Anitzeko Planean ezarritakoarekin bat.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan hori Legebiltzarrari igor

diezaion eta Muruzabalgo parrokiarekin eta udalarekin egindako zuzemenei berri eman diezaion, 2014ko martxoaren 31 baino lehen.

Iruñean, 2013ko urriaren 17an.

Foru parlamentariak: Francisco Javier Lorente Pérez, Román Felones Morrás, Miren Aranoa Astigarraga, Juan Carlos Longás García, Amaya Zarranz Errea eta Txema Mauleón Echeverría

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu Transports Ciutat Comtal enpresako langileei lan-erreforma aplikatzea.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

- “Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Transports Ciutat Comtal enpresako langileei lan-erreforma aplikatzea.
- Nafarroako Parlamentuak Iruñerriko Mankomunitatea premiatzen du bere esku dauden zuzer

men guztiak egin ditzan Transports Ciutat Comtal enpresako lan-baldintzak okertu ez daitezen.

- Nafarroako Parlamentuak Mankomunitateko lehendakariari eta TCC enpresako langileei alaitzaren azkarren igorriko die adierazpen instituzional hau.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, mendekotasunaren arretaren arloko banakako laguntza programaren onuradunen balorazio ekonomikorako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa.**

*TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, mendekotasunaren arretaren arloko banakako laguntza programaren onuradunen balorazio ekonomikorako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek ondoko

galdera egin du, Gizarte Gaietako kontseilariak Gizarte Politiketako Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez zen garaiz hasi mendekotasunaren arloko banakako laguntza programaren onuradunen balorazio ekonomikoa egiteko kontratazioa, programa hori 2012ko abenduan bukatzen bazen?

Kontratazio Publikorako Batzordeak zergatik deuseztatu zuen lehendabiziko kontratua?

Arestiko gertakari horiek zer atzerapen eragin zuten mendekotasunaren arloko prestazioak eta zerbitzuak emateari dagokionez? Zenbat pertsona daude une honetan mendekotasunaren arloko laguntza zerbitzurik edo prestaziorik gabe, Administrazioak ez duelako bete erantzun bat emateko sei hilabeteko epea?

Iruñean, 2013ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## **Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten duten edo prestakuntzan ari diren barruko mediku egoiliar atzerritarrei buruzkoa.**

*MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten duten edo prestakuntzan ari diren barruko mediku egoiliar atzerritarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Osasun Batzordeak irailaren 26an egindako bilkuran, kontseilariak batzordeari nahiz parlamentari honi adierazi zигun bi arrazoi zeudela, funtsean, Nafarroako Gobernuak iritziz aldatzeko, Europar Batasunetik kanpoko BAME-ei ikasketengatiko egonaldi-txartelaren ordean lan- eta bizileku-baimena ez emateari dagokionez, zeina Nafarroako Gobernuak 2012an formalizatu baitzuen.

• Prestakuntza aldiko ikasleak dira, beren lana eta egungo egoera arazorik gabe mantentzeko. Beren burua prestatzen ari dira, eta, ondorioz, Nafarroako osasun zerbitzuari etekina ateratzen ari dira.

• Estatuko Administrazio Orokorari 384 euroko tasa bat ordaindu behar zaio ikasketengatiko egonaldi-txartelaren ordean lan- eta bizileku-baimena ematearen truke, eta bere Gobernuak atzera egiten du horren aurrean; izan ere, kontseilariak nahiago du Nafarroako osasun zerbitzua hobetzen erabili eta gastatu diru hori.

Jakite aldera zer magnituderi buruz ari garen hitz egiten zehatz-mehatz eta kontseilariak esku

artearen darabiltzan aurrekontuetan gastu horrek eragin ditzakeen ondorioak, ondoko galderak aurkezten ditut:

• Atzerriko zenbat BAME ari dira lan egiten eta prestatzen aurten Nafarroako Osasun Zerbitzuan?

• Hirugarren urteko zenbat BAME ari dira lan egiten eta prestatzen aurten Nafarroako Osasun Zerbitzuan? Erantzuna ematean, bereizi naziokoak eta Europar Batasunekoak.

• Zer lan-itun edo -arau aplikatu behar zaie? Denei –naziokoei nahiz atzerritarrei– aplikatzen zaie araudi bera?

• Zein da hirugarren urteko BAME baten urteko lansari gordina? Xehakaturik jaso nahi ditut PFEZa, langabezia nahiz bestelako lansari-kontzeptu batzuk direla-eta ordaindutako zenbatekoak. Adierazi ea denei –naziokoei nahiz atzerritarrei– aplikatzen zaizkien deskontu berberak, kontzeptu berberak eta zenbateko berberak.

• Langile ikasle horiek urtero egiten dituzten lanordu arrunten kopurua.

• Urtero egiten dituzten guardia-orduen kopurua, hilabetez hilabete xehakaturik.

• Urteko aparteko orduen kopurua, baldin eta 2012an eta 2013an halakorik egin badute.

• Zer espezialitatetan ari diren prestatzen, xehakaturik, hirugarren urteko BAMEak –naziokoak eta Europar Batasuneko atzerritarrek–.

• Zer alde egonen litzateke guztira, gastuari dagokionez, Europar Batasunetik kanpoko BAME-ak egungo egoeran egonda ala eskatu duten aldatzea eginda?

• Behin prestakuntza aldia bukatuta, Europar Batasunetik kanpoko BAME-ek ez dute langabezia kobratzeko eskubiderik. Horrek salbuetsi egiten al du Nafarroako Gobernuak langile horiengatiko langabezia ordaintzetik?

• Zenbat pertsona kontratatuko ditu Estatuko Administrazioari 384 euroko tasa ez ordaintzeagatik aurreztutakoarekin? Zer mailatako kontratuak egiten ditu? Zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaie?

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

## **Galdera, Ganasa sozietate publikoarena den Etxauriko haritz eta gere- ziondo sailean eginiko gastuei buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Ganasa sozietate publikoarena den Etxauriko haritz eta gereziondo sailean eginiko gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzuteko:

Ganasa sozietate publikoaren urteko kontuetan, aktiboaren barruan eta, zehazki, izakinen epigrafean, 3.389.773,82 euroko kontusail bat sartu

zen, sozietateak Etxaurik daukan 70 hektareako haritzondo eta gereziondoen sail bati dagokiona.

Zenbateko horretan sartzen dira ekitaldi honetako nahiz aurreko ekitaldietako gastuak, nahiz eta zenbatekoa ez den aldatu 2011n esleitutakoaren aldean.

Gobernuak orain dela gutxi adierazi du oraindik goiz dela inbertsio horren errentagarritasuna balioesteko, 25 urteko ekoizpen-zikloa duten izakienak direlako.

Hona galdera:

1. Etxauriko sail horretan hasieratik egindako gastu guztiak jasotzen al ditu 3.378.773,82 euroko zenbateko horrek? Hala ez bada, zer beste gastu egin dira eta zer kontabilitate-tratamendu eman zaie?

2. Gaur arte egindako gastuak ongi ezkontzen al dira hasieran egindako aurreikuspenarekin, hartan oinarritu baitzen proiektua abiarazteko erabakia?

3. Gobernuaren ustez, beharrezkoa al da hasieran espero zen errentagarritasuna berrikustea? Zein izanen litzateke Gobernuak egun dabilen estimaziorik hoberena?

Iruñean, 2013ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Enpresarako Karbono Funtsean izandako parte-hartzearen balantzeari buruzkoa, ikuspuntu ekonomiko finantzariotik.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Enpresarako Karbono Funtsean izandako parte-hartzearen balantzeari buruzkoa, ikuspuntu ekonomiko finantzariotik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak, 2006ko abenduaren 29an, Espainiako Enpresarako Karbono Funtsera atxikitze hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmenaren bidez, bost milioi euro jartzeko konpromisoa hartu zuen, zenbait baldintza beteta, bai diru horren xedeari, bai epeari dagokienez.

Konpromiso horren berme gisa, Nafarroako Gobernuak kontu pignoratu bat ireki zuen, zenbaiteko horrekin, Santander banketxean.

Apirilaren 30eko 148/2013 Ebazpenaren bidez gauzatu zen Nafarroako Foru Komunitatea Espainiako Enpresarako Karbono Funtsetik irtetea, funts horretan jarraitzeko borondatea azaldu zuen bazkide bakarraren alde lagata kontratu-posizioa (Santander Carbon Finance, S.A. sozietatea).

Hona galdera:

1. Zein izan da funts horretan parte hartzearen balantzea, ekonomia eta finantza ikuspuntutik?

2. Zer arrisku hartu dira operazioan?

Iruñean, 2013ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Nafarroako Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeari eta talde horrek eginiko jardunari buruzkoa.**

*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeari eta talde horrek eginiko jardunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeari eta talde horrek aurtengo uztailearen 1etik abuztuaren 15era bitarte eginiko jardunari buruz 2013ko abuztuaren 19an egindako informazio-eskaerari erantzunez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak igorritako informazioa dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

- Baldin eta, jaso dugun informazioaren arabera, Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldea etxeko laguntzako bost sendagilek eta hiru erizainek osatzen badute, nola izan liteke sendagile bakar batek lan egin izana bertan uztailearen 1etik abuztuaren 15era bitarteko aste batez?

- Zerk eragin zuen langileei dagokienez gutxieneko egoera hori gertatzea?

- Sendagile-gabezia larri hori, ezin zaie inolaz ere egotzi langileen arloko baliabide-murrizketei eta langileak ordeztzeko kontratazioak ez egiteari?

- Departamentuaren ustez, behar bezala betetzen dira Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeko langile-beharrizanak? Departamentuak ez du uste langile-murrizketa honek kalte zuzen eta larria dakarkiola gaixoentzako eta haien senitartekoentzako laguntzaren kalitateari?

- Zer osasun-barruti artatu zuen sendagile horrek Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeko sendagile bakarra izan zen bitartean? Nafarroa osoa ala barruti jakin bat?

Kontseilariak igorritako datuak aztertuta ikusi dugu Villafrancan bi izan zirela programa horretako gaixo berriak, baina Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeak haietako bakar bati egin zion bisita. Izan ere, beste gaixoa uztailearen 27an hil zen, talde horretako inoren bisita jaso gabe, nahiz eta kasuko osasun etxeak eskaria egin zuen hamar egun lehenago, uztailearen 18an.

- Osasun Departamentuak izan al du gertakari horren berri? Departamentuak zer balorazio egin du horri buruz?

- Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeak zenbat egun behar ditu, batez beste, gaixo bati bisita egiteko, kasuko osasun etxeak zerbitzua eskatzen duenetik?

- Azkenik, Departamentuak zer neurri hartuko ditu etxeko zainketa aringarriak behar dituzten gaixoei eta haien senitartekoek laguntza duina izan dezaten urteko egun guztietan, gaixo horien bizitzaren amaieran?

Iruñean, 2013ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

**Galdera, “Montepio orokorretik toki entitateentzako transferentziak, haien finantzaketarako” eta “Iruñeko, Tuterako eta Tafallako Udaletarako transferentziak” izeneko kontusailak finantzatu behar dituen kontusaileko diru-sarrera handiagoen jatorriari buruzkoa.**

*MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, “Montepio orokorretik toki entitateentzako transferentziak, haien finantzaketarako” eta “Iruñeko, Tuterako eta Tafallako Udaletarako transferentziak” izeneko kontusailak finantzatu behar dituen kontusaileko diru-sarrera handiagoen jatorriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Gobernuak kasuko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Aurrekontuen zuzendari nagusiaren irailaren 11ko 332/2013 Ebazpenaren bidez baimendu zen aurrekontu-aldaketak egitea ondoko aurrekontu-kontusailan kreditu-gehikuntzak egiteko: “Montepio orokorretik toki entitateentzako transferentziak, haien finantzaketarako” –1.302.844,10 euro– eta “Iruñeko, Tuterako eta Tafallako Udaletarako transferentziak” –2.038.581,47 euro–.

Gehikuntza hori finantzatu da “Beste diru-sarrera batzuk” izeneko 020002-04100-3990-000000 kontusaileko diru-sarrera erreal handiagoren kargura; horren zenbatekoa, abuztuaren 31n aurkeztutako aurrekontu betetzearen arabera, 100 eurotik 3.457.114 eurora iragan zen.

Hori guztia kontuan hartuta, parlamentari honek ondoko galderak aurkeztu ditu, idatziz erantzuteko:

Zer jatorri dute aurrekontu-aldaketa horren bidez finantzatu den kontusaileko diru-sarrera erreal handiagoek?

Zer beste arlo finantzatu dira edo finantzatu dira jada 020002-04100-3990-000000 kontusailaren kargura, baldin eta superabita badago?

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

## **Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz, BEZa dela-eta “Estatuarekiko doikuntzak” kontzeptu gisa jaso edo ordaindutako kopuruei eta haien datei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz, BEZa dela-eta “Estatuarekiko doikuntzak” kontzeptu gisa jaso edo ordaindutako kopuruei eta haien datei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz, BEZa dela-eta “Estatuarekiko doikuntzak” kontzeptu gisa jaso edo ordaindutako kopuruen eta haien daten zerrenda egutegiduna jaso nahi dut, 2007tik aitzinakoa.

Iruñean, 2013ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak ez dion alegaziorik aurkeztu Gipuzkoako Aldundiak bertako zenbait errepidetan bidesariak ezartzeko aurkeztu duen proiektuari, eta horri buruzko ekimenik abian jarriko ote duen.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera zen jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak ez dion alegaziorik aurkeztu Gipuzkoako Aldundiak bertako zenbait errepidetan bidesariak ezartzeko aur-

keztu duen proiektuari, eta horri buruzko ekimenik abian jarriko ote duen, eta 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



## **Galdera, pertsona etorkinentzako doako osasun-laguntzari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Samuel Caro Sádaba jaunak pertsona etorkinentzako doako osasun-laguntzari buruz aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Gal-

dera 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Galdera, gaixo larriak edo gaixotasun larriak dituztenak tratatzera bideratutako zenbait medikamenturako koordainketa ezartzen duen Osasun Ministerioaren ebazpena dela-eta Osasun Departamentuak duen jarrerari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera gaixo larriak edo gaixotasun larriak dituztenak tratatzera bideratutako zenbait medikamenturako koordainketa ezartzen duen Osasun Ministerioa-

ren ebazpena dela-eta Osasun Departamentuak duen jarrerari buruzkoa zen, eta 2013ko urriaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko arauak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea, zeinaren 9.3 a) artikuluan xedatzen baita Kontseilu horretako bost kide Nafarroako Parlamentuak hautatuko dituela gehiengo osoz.

Ikusita Zerbitzu Juridikoen txostena, Eledunen Batzarrarekin bat, eta Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrenak xedatutakoaren arabera, hona ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko arauak onestea. Hona arauen testua:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide izateko bost pertsona hautatuko ditu Nafarroako Parlamentuko ordezkari gisa, uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

**2.** Zenbat kide hautatu behar diren, horrenbeste hautagai aurkeztu ahalko ditu parlamentu-talde bakoitzak. Hautagaiak aipatu foru legean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

**3.** Parlamentu-taldeek idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari hautagaiak aurkezteko, eta idazki horretan jasota ageriko da proposatutako hautagaien oniritzia. Proposatutako hautagaiak aipatu foru legeko 14. artikuluan ezarritako bateraezintasunen batean erortzen ote diren zehazte aldera, proposamen-idazkiarekin batera akreditazio edo adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko baita ez direla bateraezintasunean erortzen.

**4.** Parlamentu-taldeek Gizarte Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea azaroaren 8ko 12:00etan bukatuko da.

**5.** Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du proposatutako hautagaiak eskaturiko baldintzak betetzen ote dituzten, eta, jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

**6.** Gizarteko Kontseiluko bost kideen hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketan isilpekoaren bidez.

**7.** Bozketa txartelen bidez egingen da, eta zenbat kide hautatu behar diren, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean parlamentari bakoitzak.

**8.** Mahaiak botoak zenbatu eta boto gehien lortu dituzten bost hautagaiak aldarrikatuko ditu. Hautagaiak Legebiltzarreko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa lortu behar dute gutxienez.

**9.** Proposamenaren eragina izan dezaketen balizko berdinketak boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko beste bozketa baten bidez ebaztuko dira. Berdinketak bere horretan baldin badira, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte.

**10.** Lehenbiziko bozketan bost postuak betetzen ez badira 8. arauan zehaztutako baldintzak ez betetzeagatik, bozketak errepikatuko dira bete gabeko postuetarako. Bozketa hauetako txarteletan zenbat kide hautatu behar diren, horrenbeste hautagai sartu ahalko dira. Lehendakaritzak botazioak eten ahalko ditu zirkunstanziak horrela jokatzea gomendatzen badute. Segidan suertatzen badira hiru botazio hautagai guztiak edo hautagaietako bat hautatu gabe, bukatutzat emanen da hautatze-prozesua, eta prozesu berri bati emanen zaio hasiera bakarrik hautatu gabeko kideak hautatzeko.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako izendatu beharreko hiru kideak hautatzeko arauak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea, zeinaren 3.4 artikuluan xedatzen baita bere Administrazio Kontseiluko kideen heren bat izendatuko dela Nafarroako Parlamentuak proposatuta, eta aipatu 3. artikuluko 3. idatz-zatian ezartzen baita "Administrazio Kontseiluan modu proportzionalean egonen direla gizonezkoak eta emakumezkoak, halako moduz non ehunekoa ez den izanen, ez batzuen ez besteen kasuan, ehuneko 60tik goitiko."

Ikusita Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen Administrazio Kontseiluko Lehendakariaren idazkia, non zehazten baitu Nafarroako Parlamentuko hiru kontseilarien izendapena 2013ko azaroaren 4an bukatzen dela, eta ikusita, baita ere, Zerbitzu Juridikoen txostena, Eledunen Batzarrarekin bat eta Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrenak xedatutakoaren arabera, hona ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako izendatu beharreko hiru kideak hautatzeko arauak onestea. Hona arauen testua:

**1.** Nafarroako Parlamentuak hiru pertsona hautatuko ditu Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietateko Administrazio Kontseiluko kide izateko.

**2.** Parlamentu-taldeek hiru pertsonaz osatutako hautagaitzak aurkezten ahalko dituzte, banaka nahiz batera. Hautagaitzaren bi pertsona sexu batekoak izanen dira eta hirugarrena beste sexukoa. Pertsona horiek konprometitu beharko dira

aipatu Foru Legeko 3.2 artikuluan ezarritako erantzukizun eta bateraezintasun araubidea betetzera.

**3.** Parlamentu-taldeek idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari hautagaiak aurkezteko, eta idazki horretan jasota ageriko da proposatutako hautagaien oniritzia eta aurreko arauan aurreikusitako konpromisoaren adierazpena.

**4.** Parlamentu-taldeek edo foru parlamentarien elkarteek Administrazio Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea azaroaren 8ko 12:00etan bukatuko da.

**5.** Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du proposatutako hautagaiak 2. eta 3. arauetan eskaturiko baldintzak betetzen ote dituzten, eta, jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

**6.** Administrazio Kontseiluko hiru kideen hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

**7.** Bozketa txartelen bidez egingen da, eta zenbat kide hautatu behar diren, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean parlamentari bakoitzak.

**8.** Mahaiak botoak zenbatuko ditu eta boto gehien lortu dituzten hiru hautagaiak aldarrikatuko ditu.

**9.** Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko beste bozketa baten bidez ebartziko dira. Berdinketak bere horretan baldin badi-rau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

